

IÑAKI ALDEKOA ARALAR-EKO BURUKIDEA

«Abertzaleak erakundeetan hegemoniko izan daitezzen, ahalegin guztia egingo dugu»

PP eta PSOeri botere instituzionalaren «garau bat bera ere» ez emateko, Aldekoak dio Aralarrek bere esku dagoen guztia egingo duela alderdi abertzaleak eta autodeterminazioaren aldekoak hegemonikoak izan daitezzen euskal erakundeetan.

Humberto Unzueta | BILBO

Ibarretxek deituriko manifestazioaren leloari labur iritzita, Iñaki Aldekoak dio Aralarrek beste deialdi bat behar zuela, Bilboko manifestazioaren leloa berea ez zela erakusteko.

■ Azkenean, manifestazioa atzeratzea erabaki duzue.

Hegoaldeko biltzarrak hala erabaki du, batetik larunbatean bertan Iruñean egingo den Barandallaren aldeko manifestazioarekin bat egiteko, gure afiliatuek oso sentiberak baitira Barandallaren gaian; eta, bestetik, ezin ukatu sektore batek Ibarretxek deituriko manifestazioarekiko kontramantestazio kutsu bat ikusi duela.

■ Halako kutsurik egon al da?

Ezta inondik inora ere. Kontramantestazioaz ez baizik kontraproposamenaz hitz egingo nuke. Oso argi utzi nahi genuen Bilboko manifestazioa hankasartzea dela, hori ez dela bidea, alegia. Gure deialdiak Marcos komandanteordearen edukiak biltzen dituela esango nuke, bai Garzonen ebazpenei egiten dien kritikan, bai Euskal Herriaren eskubideen aitortzean. Goitik behera babesten dugu Marcosen gutuna; Batasunak berriz, ezin du gauza bera esan: hura zoriondu arren, ez du ezer entzun nahi hark ETari egiten dion kritikari buruz, talde armatuaren herritarren aurkako jardun sektorioa dela eta.

■ Urteak, baina, 365 egun dituzte.

Gauza batzuetan hirukoarekin ados gaude, baina ikusi dugunean Ibarretxek hanka sartu duela, guk gure jarrera adierazi dugu. Etorkizunari begira, jendetsua izan arren, manifestazioak ordaina ekarriko dio lehendakariari. Deialdi horretatik at geratu beharra genuen, eta pentsatu genuen horretarako egokiena egun berean beste manifestazio bat egitea zela. Baina hori ez zen kontramantestazio bat. Behin gure jarrera berezia garbi geratu denean eta Barandallaren aldeko manifestazioaren kontua aintzat hartuta, urtarrilaren 4ra arte atzeratzea erabaki dugu.

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



BATASUNA

IBARRETXEREN MANIFESTAZIOA

«Otegik berak baztertu ditu gurekin negoziatioak izateko aukera guztiak»

«Lehendakariak hanka sartu du, eta, etorkizunari begira, deialdiak ordaina ekarriko dio»

■ Leloa labur geratzen dela esan zenioten Ibarretxeri.

Guk ez dugu geure egiten *ETA kanpora* leloa, horrek oso irakurketa ezkorra baititu. Historikoki borroka armatuak esanahi eta eduki bat izan badu ere, egun ez du zentzurik, eta ETAK borroka utzi behar luke. Baina hori guztia ez da laburbiltzen *ETA kanpora* leloan.

■ Urtarrilaren 4ko manifestazioan zuen indarraren argazkia ikusiko dela esan du Otegik.

Ez dugu horren beldurrik; bi mila lagun batzen bagara, bada, bi mila izango gara. Garrantzitsuenak Ibarretxeren deialdiarekiko aldea adieraztea da.

■ Kongresuan, hauteskundeetan parte hartzea erabaki duzue. Zalantzan zeundeten ala?

Demokrazia perfekturik ez dago inon, baina guk ezin diogu PP

eta PSOeri botere instituzional garau bat bera ere oparitu, eta aurkeztu egin behar dugu. Gure esku dagoen guztia egin behar dugu alderdi abertzaleak eta autodeterminazioaren aldeko direnak hegemonikoak izan daitezzen Euskal Herriko erakunde politiko eta instituzionalen. Guk ez du ez abstentzionismora ez boikotera joko.

■ Eta hori zelan egingo duzue: bakarrik ala koalizioan?

Guretzat egokiena izango zen egoera bat non Batasunarekin lehia zuzena izan genezakeen, nahiz eta gure bitartekoak oso apalak izan haienarekin alderatuta. Gauzak endredatu egin dira, eta aipatu lehia hori ezin izango da egin. Gainera, datozen hauteskundeak iazko maiatzaren 13koaren bigarren itzulia balira bezala planteatzen hasi dira, eta horrek dena desitxuratu du. Alderdien interesetik

haratago dauden beste gauza batzuk bermatu behar dira; adibidez, Nafarroako Gobernua.

■ Tokian tokiko koalizioak planteatzen dituzue, beraz.

Nafarroaren kasuan, ezin dugu hobetsi gure alderdi interes, Batasunarekin lehiazera eramango gintuena, zeren jokoan dago Nafarroako Gobernuan beste lau urtez gehiago jarraitu ahal izatea. Indar atzerakoi eta euskararen aurkakoa da. Araban, antzeko gauza gerta daiteke hango aldundian. Beraz, ahal denean bakarrik aurkeztuko gara. Foru erakundeetara eta lau hiriburuetara bakarrik joaten saiatuko gara, eta beste udaletara jarrera irekia dugu. Lizarra-Garazirekin bat etorri eta ezkerreko printzipio aurrerakoiak dituztenekin herri hautagaitzak osatzeko prest gaude. Guk ez genuke inongo eragozpenik izango Barakaldon EB-IUrekin

bat egiteko, horrek ezkerreko eta autodeterminazioaren aldeko hautagaitza bat gauzatzeko balio badu.

■ Jo duzuen lehen atea EArena izan da.

EArekin hitz egiten ari gara, eta akordioak lortzeko bideak aztertzeari ekin diogu.

■ Zenbateraino baldintzatzan du negoziatioa EA Jaurritzen izateak?

Bistakoa da Jaurritzen ez balezko, errazago izango litzatekeela, baina gobernuan dagoenez leialtasuna zor dio Jaurritzen. Gai batzuen inguruan desadostasun nabarmenak ditugu. Abiadura Handiko Trenaren adibidea baliatzen badugu, gu ezin gara hauteskundeetara aurkeztu gai horretaz txintik esan gabe, eta EAK lotuta dauzka eskuak gai horretan, gobernuan dagoelako.

■ Batasunarekin ere hitz egiteko asmoa agertu duzue. Otegik aurrea hartu eta akordio ezinezkotzat jo berri du, eta jarrera politikoa argitzea eskatu duzue.

Otegiaren hitzak harropuzkeria hutsa dira, ez dut deus ulertu. Ezker abertzalearen hausturaz hitz egiten ari da behin eta berriro eta galdetu behar zaio Euskal Herriaren batasun aberats hura nork apurtu zuen. Ez baziren izan Lizarra-Garaziren gaineratik pasatu eta armatar itzuli zirenak. Ezker abertzaleak ilusio eta hitzarmen hura puskatu zuen eta Aralar haren ondorio bat besterik ez da. Aralar ez zen Batasunean sartu, Batasuna prozesu sortzaile bat zelako. Batasuna eratu aurretik guk alde egin genuen. Haatik, Batasuna Aralarren ondotik sortu zen, ez aurretik eta Otegik ez du hori onartzen, ezta ezker abertzalearen aniztasuna ere, ezta ezker abertzalearen baitan batasun bat egon daitekeela ere.

■ Beraz, Batasunarekin ezer ez.

Baina ez guk nahi izan ez dugulako, ezker abertzalea artikulatzearen aldeko garelako maiz erakutsi dugulako, batez ere azken boladan euren alde hainbat ekimen bultzatu ditugulako. Baina egunotan egin dituen adierazpenekin ulertzen dugu baztertu egin duela gurekin negoziatioak izateko aukera. Batasunak besterik egin nahi badu, eurak mugitu beharko dira eta esango digute, guk gehiago ezin dugu egin.